

**Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala**



**Boletín
Oficial de
Gipuzkoa**

209

2018ko urriaren 30a, asteartea

1

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

25/2018 Foru Dekretua, urriaren 23koa, interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezko mezenasgo jarduerak 2018. eta 2019. urteetarako ezartzen dituen.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, mezenasgoari aplikagarri zaizkion zerga pizgarriak arautzen ditu III. tituluari.

Zehazki, titulu horretako IV. kapituluak jasotzen du zein zerga onura aplikatzen zaizkien lehentasuna aitortua duten jarduerari eta aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko programei.

Lehentasunezko mezenasgo jarduerari dagokienez, aipatutako foru arauaren 29. artikulua dio Gipuzkoako Foru Aldundiak interes orokorreko xedeen esparruan lehentasunezko zatitza jotzen diren mezenasgo jardueren zerrenda bat egin ahal izango duela ekitaldi bakoitzerako, entitate onuradunak zein diren eta jarduera horiek zer behar izan eta baldintza bete behar dituzten ere zehaztuta: hori guztia artikulua horretan aurreikusita dauden zerga onurak aplikatze aldera.

Foru dekretu honen bitartez ezartzen dira 2018. eta 2019. urteetarako lehentasunezko zatitza jotzen diren jarduerak, eta, halaber, zehazten da zer entitatek izan behar duten ekarpenen onuradunak, hala dagokienez, eta zer behar izan eta baldintza bete behar diren jarduerak horien garapenean.

Aurreko ekitaldiko era berean, foru dekretu honek informazio obligazioak ezartzen ditu bai lehentasunezko jarduerak eta programak garatzeko ekarpenak jasotzen dituzten pertsona eta entitateentzat, eta bai jarduketan eremu desberdinetako organo eskudunentzat, eta horren helburua da informazio horretatik ateratzen diren ondorioak euskarri bat izatea emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatuko dituzten lehentasunezko jarduerak etorkizunean deklaratzeko.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.

Foru dekretu honen helburua da interes orokorreko 2018. eta 2019. urteetarako xedeen esparruan lehentasunezko zat jotzen diren mezenasgo jarduerak ezartzea; eta, orobat, adieraztea zer entitate izango diren onuradunak eta zer beharkizun eta baldintza bete behar dituzten jarduera horiek apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 29. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2. artikulua. Lehentasunezko jarduerak gizarte politiken esparruan.

1. 2018. eta 2019. urteetarako, honako programa edo jarduera hauek izango dira lehentasunezkoak gizarte politiken esparruan:

a) Herri onurakotzat aitortutako fundazio eta elkarteek Gipuzkoan garatutako programak –fundazio eta elkarte horiek inskribatuta egon behar dute Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan, otsailaren 3ko 4/2015 Foru Dekretuaren bidez araututakoan–, baldin eta programen helburua honako hau bada:

a') Gizartean eta lan munduan integratzea laguntza eta arreta premia bereziak dituzten kolektiboak, esate baterako, desgaitasuna duten pertsonak, baztertuta geratzeko arriskuan direnak edo baztertuta daudenak.

b') Arreta ematea mendekotasun egoeran dauden pertsonen, desgaitasuna duten pertsonen, baztertuta geratzeko arriskuan direnei zein baztertuta daudenei.

b) Gizarte Zerbitzuen alorrarekin edo arlo sozio-sanitarioarekin zerikusia duten gaien buruz Gipuzkoan garatzen diren ikerketa proiektuak.

2. Aurreko apartatuan adierazitako jarduera eta programei dagokienez, foru dekretu honen 12. artikuluan aipatzen den eskaerarekin batera, memoria labur bat aurkeztu beharko da bertan zehaztuta zein kolektiborentzat dagoen pentsatuta, zer helburu lortu nahi den eta sarrera eta gastuen aurrekontua zein den.

3. artikulua. Kirolaren esparruko lehentasunezko jarduerak.

2018. eta 2019. urteetarako honako programa edo jarduera hauek izango dira lehentasunezkoak kirolaren esparruan:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017-2018, 2018-2019 y 2019-2020 ikasturteetarako onartzen dituen eskola kiroleko jarduera programetan ezarritako beharkizunak eta baldintzak betetzen dituzten kirol jarduerak.

b) Gipuzkoako kirol elkarte, selekzio eta kirolariek kirol txapelketetan parte hartzea, betiere beharkizun hauek betetzen badira:

a') Errendimenduko kirol txapelketa ofiziala izatea eta izaera profesionalik ez edukitzea. Ondorio horietarako, gizonezkoen futboleko lehen mailako eta bigarren A mailako kirol txapelketa profesionaltzat hartzen dira.

b') Parte hartzea estatuko bi kategoria gorenetakoa batean, Europa edo mundu mailako txapelketa batean, edo nazioarteko kirol topaketetan. Taldekako zenbait kirol modalitateetan, hirugarren kategoria aintzat hartuko da lehiaketaren lurralde eremua autonomia erkidegoaz gaindikoa denean.

Mendiko kirol modalitatean, lehentasunezkoak izango dira zortzi mila metrotik gorako gailurrak igotzea eta goi mailako eskaladak egitea.

Bertako kirol modalitateak direnean –tosta finkoko arrauketa, pilota, boloak eta toka eta herri kirolak-, lehiaketaren lurralde eremua kasuan kasuko ezaugarrien arabera erabakiko da.

c) Honako baldintza hauek betetzen dituzten kirol jarduerak:

a') Nazioarteko parte hartze esanguratsua izatea, bai kualitatiboki bai kuantitatiboki. Baldintza hori ez da kontuan hartuko bertako kirol modalitateak direnean edo jardueren helburu nagusia kirol errekreazioa denean, baldin eta, azkeneko kasu horretan, mila kirolarik baino gehiagok parte hartzen badute.

b') Jarduerak, zati batean behintzat, Gipuzkoan egitea.

d) Kirolgi Fundazioak errendimendu kirola Gipuzkoan mantendu, sustatu eta antolatze-ko egiten dituen programak eta jarduerak.

e) Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkarteko jarduerak, baldin eta haren plan estrategikoan sartuta badaude, Gipuzkoako federazio sistema osoari onura badakarkio, eta Gazteria eta Kiroleko Zuzendaritza Nagusiaren adostasuna badute.

f) Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak eta «Hegalak Zabalik Fundazioak» antolatutako jarduerak, desgaitasuna duten pertsonen kirola egitea bultzatzeko direnean.

g) «Real Sociedad Fundazioak» eta «Ipurua Kirol Fundazioak» garatzen dituzten jarduerak eta programak.

h) Protagonistak emakumeak diren edo emakumeen partaidetza bultzatzen duten kirol jarduerak edo lehiaketak, edozein dela ere modalitatea, berariaz, genero-estereotipoak haustea bultzatzen dutenak, edota emakumeen ikusgarritasuna eta aitorpen soziala sustatzen dutenak.

4. artikulua. Lehentasunezko jarduerak kulturaren esparruan.

1. 2018. eta 2019. urteetarako, honako programa edo jarduerak hauek izango dira lehentasunezkoak kulturaren esparruan:

a) Nazioarte mailako kultur programak egitea. Halakotzat hartuko dira nazioarte mailako aitortza lortu duten sortzaile lokalen obrak ezagutarazteko egiten direnak, espainiar estatutik kanpo jarduten duten kultur erakundeek egiten dituztenak, edo hainbat herrialdetako artistek parte hartuta antolatzen direnak. Eskareri jarduketa proiektua eta inbertsio, gastu eta sarreren aurrekontua erantsi behar zaizkio.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetuta dauden edo harekin hitzarmena indarrean duten entitateen kultur programak egitea. Entitateak partaidetuak direla ulertzen da erabaki organoetan Gipuzkoako Foru Aldundiak ordezkari bat duenean. Eskaerari jarduketa proiektua eta inbertsio, gastu eta sarreraren aurrekontua erantsi behar zaizkio.

c) Gipuzkoako museo eta artxiboetan inbertitzea edo jarduketak egitea, horietan bilduma propioa dagoenean eta beren kudeaketarako instalazio eta langile egokiak eta kualifikatuak dituztenean. Inbertsio proiektu bat edo jarduera programa bat aurkeztu behar da, gastu eta sarreraren aurrekontua ere erantsita; eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak aldeko txostena eman behar du.

d) Gipuzkoako kultur ekipamenduetan inbertitzea eta euskal kultura tradizionalarekin lotutako jarduerak aurrera eramateko ekarpenak egitea. Inbertsio proiektu bat edo jarduera programa bat aurkeztu behar da, gastu eta sarreraren aurrekontua ere erantsita, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuak aldeko txostena eman behar du.

e) Argitalpen industriarako nahiz industria fonografiko, ikus-entzunezko, multimedia eta eszenikoetarako (antzerki, dantza, musika) Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten diren ekoizpenak. Ekoizpen horiek sustatzen dituzten entitateek jarduera horietan arituak izan behar dute azken hiru urteetan, modu jarraituan. Proposatzen den produkzioaren proiektu edo programa aurkeztu behar da, eta inbertsio, gastu eta sarreraren aurrekontua erantsi.

Argitalpen industria da batez ere liburuak argitaratzeagatik fakturatzen duena. Industria fonografikoak batez ere diskoak editatzeagatik fakturatzen du. Ikus-entzunezko industriak telebista eta zinerako edukiak ekoizten ditu. Multimedia industriak testu, irudi eta soinua biltzen dituzten edukiak ekoizten ditu. Eta antzerki enpresak testu dramatikoak ekoiztu eta antzezten ditu.

f) Kultur ondasun kalifikatuak eta inbentariatuak artatu edo balioan jartzeko egiten diren jarduketak. Kasu horietako bakoitzean, ondasunak Eusko Jaurlaritzak babestuta egon behar du dagokion dekretua dela medio; eta babes maila ondasun kalifikatuarena edo inbentariatuarena izan behar da. Kasu horretan, egitekoa den jarduerak bat etorri behar du Eusko Jaurlaritzaren dekretuan ezartzen den babes araubidearekin. Gainera, jarduketa proiektua eta inbertsio, gastu eta sarreraren aurrekontua aurkeztu behar dira.

g) Aranzadi Zientzi Elkartearen jarduerak.

h) Mundubira 500: Elkano Fundazioak antolatutako jarduerak.

i) Ordiziaren sorreraren 750. urteurrenaren ospakizunen barnean antolatutako jarduerak.

2. Aurreko apartatuko a) letratik f) letrara bitartean adierazitako jarduera edo proiektuei dagokienez, entitate onuradunak izan daitezke jarduera horietako bat zein batzuk irabazi asmorik gabe eta finantzazio propioa nahiz hirugarrenen xede horietarako egindako ekarpenak erabilia egiten dituzten guztiak.

5. artikulua. Lehenasunezko jarduerak nazioarteko lankidetzaren esparruan.

1. 2018. eta 2019. urteetarako, lankidetzaren politiken esparruan, lehenasunezkoak izango dira herri onurakotzat aitortutako irabazi asmorik gabeko entitateek edo fundazioek Gipuzkoan edo Gipuzkoatik garatutako nazioarteko lankidetzaren alorreko programak eta jarduerak.

2. Aurreko atalean adierazitako jarduerari eta programei dagokienez, aurkeztu behar da, foru dekretu honen 12. artikuluan aipatutako eskaerarekin batera, jarduera edo proiektuaren sarreren eta gastuen aurrekontua, bai eta, hala badagokio, inbertsioen aurrekontua ere.

6. artikulua. Euskararen esparruko lehenasunezko jarduerak.

1. 2018. eta 2019. urteetarako, honako jarduerak izango dira lehenasunezkoak euskararen esparruan:

a) Euskarazko aldizkako argitalpenak.

b) Euskararen erabilera soziala sustatzeko programa eta jarduerak.

c) Gipuzkoan euskaraz hedatzen diren e irratiak.

d) Gipuzkoan euskaraz hedatzen diren toki telebistak.

e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliaz, edukiak euskaraz hedatzeko proiektuak.

f) Euskararen erabilera arlo sozio-ekonomikoan sustatzeko jarduerak eta ekintzak.

g) Mikel Laboa katedraren esparruan egindakoak.

h) Mintzola Fundazioak egindakoak.

i) Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako 2deo proiektua: «Euskarazko ikus entzuzkoen sormen laborategia».

2. Aurreko apartatuko a) letratik f) letra bitartean azaltzen diren jarduerari dagokienez, aurreko apartatuan adierazitako jarduera edo proiektuetako bat zein batzuk egiten dituzten guztiak izan daitezke entitate onuradunak, baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak 2018an edo 2019an, kasuaren arabera, kudeatutako programen konturako diru laguntzak jasotzeko beharkizunak betetzen badituzte.

3. Foru dekretu honen 12. artikuluan aipatzen den eskaerarekin batera, jarduera edo proiektuaren sarreren eta gastuen aurrekontua aurkeztu behar da, bai eta inbertsioen aurrekontua ere.

7. artikulua. Lehenasunezko jarduerak sustapen ekonomikoaren eta berrikuntzaren esparruan.

1. 2018. eta 2019. urteetarako, honako jarduera hauek izango dira lehenasunezkoak sustapen ekonomikoaren eta berrikuntzaren esparruan:

- a) Arlo hauetan ikerketa eta esperimentazio lana garatzen edo ahalbidetzen duten jarduerak: nanozientziak, nanoteknologiak, mikroteknologiak, fabrikazio aurreratuko ikerketa jarduerak, genomika eta proteomika, bioteknologia, neurozientziak, arlo biosanitarioa, energia berriztagarriak, erregai-pilak, zibersegurtasuna, pertsonen zahartzea, elektromugikortasuna eta gastronomiaren digitalizazioa.
- b) Irabazi asmorik gabeko entitateen programak eta jarduerak, haien xedea enpresa ekintzailetza Gipuzkoako Lurralde Historikoan bultzatzea denean.
- c) Basque Culinary Center Fundazioak sorrerako xedeei begira garatzen dituen jarduerak.
- d) Biozientzia Gipuzkoa Fundazioak sorrerako xedeei begira garatzen dituen jarduerak.
- e) Gipuzkoako Bazkondeak garatzen dituen jarduerak.
- f) Bizitza osoko ikaskuntza sustatzeko jarduerak, hasierako prestakuntza arautua (hezkuntza agintari eskudunek finantzatua), okupazionala eta jarraitua integratzen duten entitateek garatuta.
- g) Euskal Herriko Unibertsitatearen «Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren astea».
- h) Gipuzkoako unibertsitate esparruan talentua erakarri eta atxikitza bideratutako programen jarduketara lerroak.
- i) «Ekonomia zirkularra»ren estrategian bildutako ekimenak, esparru hauetako bat hartzen dutenean:
 - Diseinu ekologikoa.
 - Ekonomia funtzionala.
 - Berrerabilpena.
 - Konponketa.
 - Birfabrikazioa.
 - Birziklapena.
 - Ekologia industrialia.

2. 1. apartatuko a) letraren jardueraren bat edo batzuk beren helburuen artean dituzten entitate guztiak izan daitezke onuradunak. Nahitaezkoa da jarduera horiek Gipuzkoan egitea, eta entitateak lurralde horretan kokatuta egotea.

Zehazki, entitateek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteak izan behar dute. Ospitaleek egindako ikerkuntza jarduerak ere barruan sartu daitezke, haien helburua 1. apartatuaren a) letran jasotako artean badago.

Esparru honen barruan sartuko dira ikerkuntza lerro eta proiektuak, eta azpiegitura eta ekipamendu berrietan egindako inbertsioak.

Entitate onuradunei ekarpenak egiteko baldintza gisa ezartzen da urte anitzeko hitzarmen bat izenpetu behar dela proiektua garatzeko, eta hitzarmen horretan zehaztu beharko da zer jardueratarako erabiliko diren ematen diren funtsak.

8. artikulua. Lehentasunezko jarduerak suteen aurkako esparruan.

Suteen aurkako esparruan, Sueskola Gipuzkoa Fundazioak garatutako jarduerak eta programak jotzen dira lehentasunezko zat 2018. eta 2019. urteetarako.

9. artikulua. Doako zerbitzu prestazioei onurarik ez aplikatzea.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 29. artikuluan ezartzen dituen zerga onurak ez dira aplikagarriak izango pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek, sozietateen gaineko zergaren zergadunek edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek aurreko 2.etik 5.era bitarteko artikuluetan adierazitako esparruetako edozeinetan doan egin dituzten zerbitzu prestazioetan.

10. artikulua. Diruzkoak ez diren ondasun entregan balioaren zehaztapena.

Lehentasunezko zat hartutako jarduerak edo programak garatzeko diruz egiten ez diren ondasunen entregak baloratze aldera, jarraituko zaio 2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak, 20. artikuluan jasotakoari.

11. artikulua. Zerga onurak aplikatzeko mugak.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak, 29. artikuluan jasotako zerga onurak bakarrik aplikatu ahal izango zaizkie batera hartuta dena delako programa edo jarduera garatu edo exekutatzeko behar diren inbertsioen eta gastuen batura gainditzen ez duten ekarpenei.

Muga hori gaindituz gero, zerga onura ekarpen zaharrenei aplikatuko zaie.

12. artikulua. Lehentasunezko jarduera izendatzeko eskaera.

Foru dekretu honen 2. artikuluko 1. apartatuan, 3. artikuluko a)tik c)ra arteko letretan eta h) letran, 4. artikuluko 1. apartatuaren a)tik f)ra arteko letretan, 5. artikuluan, 6. artikuluko 1. apartatuaren a)tik f)ra arteko letretan, eta 7. artikuluko 1. apartatuaren a), b), f), h) eta i) letretan adierazitako jarduera edo programetako bat edo batzuk egiten dituzten pertsona edo entitate guztiek delako jarduera edo programa lehentasunezkoen artean sartzeko eskaera aurkeztu behar dute, idatziz, 2018. urtea edo 2019. urtea, kasuaren arabera, amaitu baino lehen, berariaz hala izenda dadin; eskaera hori jarduketa eremuaren arabera Gipuzkoako Foru Aldundian eskudun den departamentuari aurkeztu behar zaio.

13. artikulua. Lehentasunezko jardueratzat hartzeko elkarrekikotasuna.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 31. artikuluan xedatzen duenez, foru arau horren 29. artikuluan aurreikusten diren zerga onurak estatuko eta beste foru

lurraldeetako organo eskudunek lehentasunezkoztat jotzen dituzten jardueri eta programei ere aplikatuko zaizkie, baldin eta, haiek onartua duten araudian beste hainbeste egiten bada Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako jarduera eta programekin.

14. artikulua. Jarduera edo programen genero eraginari buruzko informazioa.

2018. eta 2019. urteetan lehentasunezkoztat hartu eta garatutako jarduera eta programa guztietan, horiek garatzeko ekarpenak jasotzen dituzten pertsonak eta entitateek honako informazio hau sartu beharko dute irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimena eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 87/2004 Foru Dekretuak 8. artikulua 1. apartatuan aipatutako memorian: genero eraginari buruzko informazioa, jarduerak edo programak genero estereotipoak desagertzeko helburuak bete izanari buruzko informazioa eta, azkenik, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren sustapenari buruzko informazioa.

15. artikulua. Foru dekretu honetan aipatzen diren entitateen ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak aplikaziotik kanpo uztea.

Foru dekretu honetan lehentasunezkoztat hartutako jarduerak egiten dituzten entitateen ondasun entregan edo zerbitzu prestazioen kontraprestazioei inoiz ere ez zaizkie aplikatuko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriari buruzkoak, 29. artikuluan aurreikusten dituen zerga onurak.

Xedapen gehigarriak.

Lehena. 2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriari buruzkoak, 29. artikulua 4. apartatua eta, orobat, 2004ko azaroaren 2ko 87/2004 Foru Dekretuak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimena eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua onartzen duenak, 8. artikuluan aipatzen dituzten ziurtagiriak jaso beharko du Ogasun eta Finantza Departamentuan onura fiskala aplikatzen zaion zergaren aitorpena jasotzen duen kudeaketa organoaren bisatua.

Bigarrena. Ez da beharrezkoa izango ziurtagiria bisatzea, baldin eta lehen aipatutako 29.4 artikulua arabera gaian eskumena duen departamentuak Ogasun eta Finantza Departamentuari zerrendaturik bidaltzen badio zer jarduera jotzen diren lehentasunezkoztat ekitaldi bakoitzerako, zeintzuk diren ekarpen egileak eta baldintzak betetzen dituzten jardueretarako zer kopuru eman diren.

Hirugarrena. Lehentasunezko izendatutako jarduera edo programak garatzen dituzten pertsona eta entitateek beren memorietan eman behar duten informazioan oinarrituta, gaian eskumena duen departamentuak txosten bat egingo du garatutako jarduera edo programaren genero eraginari buruz, eta, hala badagokio, txostenean hizpide izango du, baita ere, zer neurritan betetzen dituen jarduera edo programa horrek genero estereotipoak ezabatzeko eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko helburuak. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren aholkularitza jasoko du.

Amaierako xedapena.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2018ko urriaren 23a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Jabier Larrañaga Garmendia. (7147)